

Helduen literatura

Etxekalte
Harkaitz Zubiri
Susa, 2012.



Etxekalte

BAZEN BEHIN Donostian taberna bat ordu txikietan irekita egoten zena eta jazza hango kontua eta epizentroa zuena eta izen horrekin ezagutzen genuena. Horrek, edo etxeari onik ez dakarkion semantikak, ematen dizkio paisaia eta erritmoa Zubirik estreinakoz idatzitako nobelari, nire ustez. Kolore tristea du, iluna, miseriari dariona, eta erritmo pausatua, narrazioaren puskak ondo zizelkatzeko.

Jazza, kasurik gehienetan, beltza da eta etxekalteak lekarkeena ere halakoxea, nobela honen nondik norakoaren parekoa, nahiz eta eleberria ez izan beltza eta suspensetik itxura besterik ez eduki. Argumentuak balirudike enpresa batean amiantoak sorturiko heriotzak eta ondoezak eragindako ondorioetan oin hartzen duela, baina ezta hurrik eman ere, hori aitzakia besterik ez baita enpresa txiki horren inguruan kateatzen diren hainbat lagunen harreman sarea osatzeko. Eta hortxe dago nobela honen grazia eta inflexio gunea. Pertsonaia nobela da.

Pertsonaia nobela denez, Olezak zioena nahitaez gogoratu behar dut. Gizon honek zioen literatur pertsonaiek Darwinen teoria hankaz gora jarri zutela, horrela, hasierako kontakizun mitikoetan, Jainkoak nagusitzen zirela; geroxeago epopeietan, Erdi Jainkoak; denboran aurrerago erromantzeetan, Jauntxoak; eleberri garaikidean, guk ezagutu dugun pertsonaia arrunta errealismoan, batez ere; eta

azkenik, postmodernismoak patetikoak, izenik gabekoak... ekarri dizkigula. Eta patetikotik asko dute *Etxekalten* paseoan dabiltzan fikziozko giza-kiak, amianto bezain arriskutsua den amaraunean harrapatuak denak ere. Anaitasuna enpresan gertatzen da amiantoaren kontua eta paradoxikoki anaitasunaren antitesia den harreman amarauna bihurtzen da nobelak aditzera ematen duen krisi ekonomikoaren parekide.

Amiantoak sorturiko pertsonaia baten heriotzaren inguruan jakin nahian hasiko dira egia justuaren bila eleberri honetako protagonista batzuk eta azkenean, ez dakigu, nork nori zer. Argi geratzen zaiguna da harreman amarauna gezur txikiekin, norbanakoen interesekin osatuta dagoen amiantoazko harreman kutsatua dela.

Hori da gaia 20 kapituluetan barna, idazleak ondo lotzen dituen kapituluak egiari zor, eta irakurleak aise segitzen eta identifikatzen dituenak. Azkenean, amiantoaren eraginaz hasieran baino gutxiago dakigu, baina, narrazioak duen barruraino gonbidatu gabe sartzeko indarrak triste antzean utzi gaitu ohekide, lagun nahiz lankideei behaka amianto aztarnik baleukate ere, baldin baitan ere. ■

Gema Lasarte

